

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

triskantza	Zaila izan zen, ordea. Triskantza hartan ez zen ezer osorik geratzen.
aitzitik	...eta odolez zikindurik egon arren, ez zidan axola izan; aitzitik , komenigarria ere bazen zikinkeria hura.
simaaur	Den-dena txikituta zegoen, hormak odol zipriztinez beterik, simaurren kolorekoak.
paparra	Sinestekoa ere ez zen; ez agerpen hura ez nire ilusioa. Harengana hurbildu eta paparra laztandu nion
anabasa	Nik bakean urteko baino ez nien esan, eta ea zer zen anabasa hura guztia, afaririk eta argirik gabe geunden eta.
zalaparta	Bere gorputz okerra zalaparta handiz erori zen beherantz, eskaileraren ertz zorrotz guztiak joz, ...
bits	Eta lagunen ahotsak urrundu ziren bezala alfertu zen lehen olatuaren bitsa ur gainean.
imintzio	Mediku jaunak gorriturik zeukan aurpegia eta etengabeko imintzioak egiten zituen.
jaregin	—Eta saioen artean, orratz-punta zorrotzak sartuko dizkiogu lepoan! —erantzun zuen lagunetako batek mediku jaunaren burua jaregiteaz bat.
lerde	Marisa oso kontent zetorren pasilloren bestaldetik, barrez eta lerdea zeriola...
paratu	Asier zomorrozalea sotoko biltegian pattar bila ari zela, hara non Jose izeneko gizon zuria aurrez aurre paratu zitzaion...
pattar	Asier zomorrozalea sotoko biltegian pattar bila ari zela, hara non Jose izeneko gizon zuria aurrez aurre paratu zitzaion,
artega	Hartan ere, hala omen zeuden, oso artega gainera, eta lurrean botatako ardo-zopari usaina hartu ziotenean, ...
garratz	Ardo garratza usainduta, zomorrozale batzuk hurbildu omen ziren.
kilimak	Bazirudien lagunen oihuek gorputz osoan kilimak eragiten zizkiotela.
uzta behar baino lehen...	" Uzta behar baino lehen jasoz gero , intxaurrek egunero", esaten zuen aitak.
profitatu	Ni, inguruan gizon zuririk ez zegoela profitatuz , idazmahaietan nongoen, euli marrazkiak taxutzen, jo eta ke lanean.
orro	Hazten zihoan orroa zen hura, ordea, eta, aztoraturik, idazmahaitik altxatu eta pasillora atera nintzen.
antzarrak ferratzera	Intsektuok ahotsen hitz politen antzekoak esaten zituztela esan balit norbaitek, segituan antzarrak ferratzera bidaliko nuen.
hitzetik hortzera	Haiek, ordea, hitzetik hortzera goraipatzen zituzten zomorroak, eta bazirudien, horretaz aparte, ...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

apeta	—Estepan, Asierrek bizio handia du, eta bere apetak inork baino hobeto asetzeko gidari postuaren irrikan dago.
gutarrak	Horiek ez dira gutarrak , ez dira Marisa edo Kepa bezalakoak. Ez dute gurekin hitz egin ere egin nahi.
hausnartu	Egun osoa buruari bueltaka ematen nuen eta horrek neke handia sortzen zidan harik eta hausnartutik aharrausira pasatzen nintzen arte.
aharrausi	Egun osoa buruari bueltaka ematen nuen eta horrek neke handia sortzen zidan harik eta hausnartutik aharrausira pasatzen nintzen arte.
lausotu	...belar-izpi beraren aurrean geratu behar, astiro-astiro pentsamendua lausotzen da.
kargu hartu	-Estepan, nork eta Asierrek hartuko dizu kargu !
koskortu	Aitak kontatu zidan txikitan, baina, beste gauza askotan bezala, koskortu egin beharra dago halakoak ulertzeko...
esanekoa	Nik ondo ezagutzen nuen egia hori, eta kepa lagunak ere bai, oso esanekoa baitzen. Salbuespenak okertzen du bidea, beraz.
lo-kuluxka	Hi aspaldi honetan gizon zuriak lez habil, orain aginduka, orain lo-kuluxkan .
ilunabar	Anaia zaharrarekin etxe ondoko haritzpean emandako ilunabarrak ekartzen zizkidan gogora, abaropean oskarbiari begira.
abaro	Anaia zaharrarekin etxe ondoko haritzpean emandako ilunabarrak ekartzen zizkidan gogora, abaro pean oskarbiari begira.
lañotasuna	Halakoetan gidari lanaren zailtasuna kontuan hartu eta, nire lañotasuna zuritze aldera, ez hainbeste mintzatzeko esaten nion Kepari.
zuritze aldera	Halakoetan gidari lanaren zailtasuna kontuan hartu eta, nire lañotasuna zuritze aldera , ez hainbeste mintzatzeko esaten nion Kepari.
ezpala	Zu zer zara, aitaren ezpala ala galtza-jarioa?
ganbara	—Bai Estepan, baina hartarako etxearen jabeak pipiak jota eduki behar ganbara . Ezetz asmatu nork esan zuen eroturik zeundela?
pipi	—Bai Estepan, baina hartarako etxearen jabeak pipiak jota eduki behar ganbara. Ezetz asmatu nork esan zuen eroturik zeundela?
gogaikarri	...egoera gogaikarria , zalantzarik gabe, batez ere bat edo bi ez ezik, den-denak batera marmarrean aritzen zirenean.
bizi	Hura ez zen bizitza. Ohean etzanda beldurrak bizi ninduen . Gizon zuriren bat noiz etorriko zain, ez nintzen mugitzera ausartzen, ...
baldar	Egia zen baldarra zela. Jaio zenetik arazoak izan zituen oinez ondo ibiltzeko eta eskuekin gauzak hartzeko.
ziztrin	Gauza orok, ordea, badu bere espiritua, hala gizakiek nola munduko gauzarik ziztrinenak ere...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

apopilo	Minaren gorputza zure azala eta erraietan sentitzen duzuna da, baina, joan ondoren, bere espiritua apopilo gelditzen da zure buruan,...
karranpa	...eta burutik hasi eta oinen puntaraino zeharkatu ninduen karranpa mingarria nabaritu nuen, eta nahiz eta karranpa hori faltsua izan...
matxinatu	Gizon zuriek bertatik eramateko heldu zidatenean ez nintzen matxinatu , beste leku urrutiko batean zegoen nire pentsamendua.
berba-lapiko	Azkenean, berba-lapiko harekin gogaituta, hori ere esan nion, baina berak oso normala zela erantzun zidan...
gogaitu	Azkenean, berba-lapiko harekin gogaituta , hori ere esan nion, baina berak oso normala zela erantzun zidan...
ikuilu	... ukuilura joateko esan zidanean, bada, inoiz sentitu gabeko poza hartu nuen.
adaxka	Trosta politean nenbilen moxalaren gainean, zuhaitzen beheko adaxkak buruarekin apurtzen, eta bat-batean moxalak estropezu egin...
itzel	...nahiz eta barru-barruan nekez eusten nion tontakeria haiei guztiei arrapostu egokia emateko gogo itzelari .
moxal	Gurasoekin bizi nintzela, aitak behin moxala oparitu zidan. Txikia nintzen ni artean, eta ilusio handia egiten zidan moxalak ...
trosta	Txikia nintzen ni artean, eta ilusio handia egiten zidan moxalak, hara-hona trosta ederrean ibiltzeko jakina.
ustea ustel	Aurreko urteetan, ordea, nire usteak ustel geratuak ziren, hau da, eguna iristean, aitak opariren bat egiten zidan, baina ez moxala.
etorria	Bere etorria oparoa zen aspertasunez. Zentzurik ez zeukaten gauzak esaten zituen etengabe, hala nola,...
hala nola	Zentzurik ez zeukaten gauzak esaten zituen etengabe, hala nola , gaixorik ez egotera, garrotez hilko nindutela.
miragarri	Niri miragarria iruditu zitzaidan makina horrek egiten zuena: errebote jolasean bezala...
erretxindu	Halako hitz politikak erabili nituen, baina alferrik izan zen; artean erretxindurik , oso aurpegi arraroz begiratu eta behingoz isiltzeko esan zidan.
zakar	Mediku jaunaren gelara joateko esan zidan zuri lelo hark, eta baita azkar altxatzeko ere. Zakarrak izan ziren bere hitzak, agindu kutsua zerien.
zerien	Mediku jaunaren gelara joateko esan zidan zuri lelo hark, eta baita azkar altxatzeko ere. Zakarrak izan ziren bere hitzak, agindu kutsua zerien .
taxuzko	Nire ustez, taxuzko arrapostua merezi zuten mota haietakoak ziren, "ez dit gogorik ematen"edo halako zerbait erantzutea merezi zutenak, alegia.
zuhur	...orratz-punta zorrotzen dantza gogoan nuen eta zuhurrago iritzi nion txintxotasunari.
kulunka-jolasa	Esan nahi dut, kulunka-jolasa onartzen zigutela, algara ederra ez bezala, baina akaso kulunkarena aspergarriagoa izateagatik zen hura,...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

onuragarri	Deseroso sentitzen nintzen nire jarduera onuragarriak eskertzen ez zizkidaten jende harekin; esker txarrekoak!
esker txarrekoa	Deseroso sentitzen nintzen nire jarduera onuragarriak eskertzen ez zizkidaten jende harekin; esker txarrekoak !
harrotu	Manuelen heriotzak Etxe Zuriko bazter guztiak harrotu omen zituen.
maltzur	Sinesgaitza zen zuria baino maltzurrago izatea, baina, ahotsek hala esaten bazuten, beharko hala izan, ...
kolokan	— Arriskutsua ere bada, eta akaso kolokan dago zure burua.
arrabola	...zoru bigunean luze-luze jarri eta bueltak ematen hasi nintzen, arrabola banintz bezala, pareta batetik bestera, rulin-riulan, ...
gero!	Ez zutela ahotsik entzun nahi?, bada ondo; ez zutela algararik egin nahi?, bada primeran; baina besteak bakean uztea asko zuten, gero!
iruzur	Rulin-riulan solairuan hurrengo bueltan, ordea, adiskidetasun hura iruzurra zela begitandu zitzaidan...
nola... hala...	Nola lanbroan ezkutaturiko irudia hurbildu ahala gero eta gehiago nabarmentzen den, bada, hala ikusten nituen nire oroipenak.
betiko lepotik burua	Hark betiko lepotik burua . Ondo zekien baina, saria jaso behar nuela, eta Gela Bigunera bidali ninduen.
uharri	Udako erreka bezalako zen nire pentsamenduaren haria, uharriak eta hamaika bihurtu saihestea izugarritzko lana suertatuko balitzaio bezala.
nolako... halako...	...eta horrexegatik diot nire loaldia luzea baino luzeagoa izan zela, nolako loaldiri halako esnatzea zegokiolako.
iseka	Iseka ederrak egin genizkien orpoz orpo eta izerdi patsetan zebiltzan bi zuri haiei.
orpoz orpo	Iseka ederrak egin genizkien orpoz orpo eta izerdi patsetan zebiltzan bi zuri haiei.
birao	Zurien biraoak belarrietan, Etxe Zuriari hiru buelta eman genizkion, eta laugarrena eta bosgarrena ere egingo genituen...
gerizpean	Gerizpean nengoen haietako batean ezagutu nuen Manuel gizajoa.
magalean	Haritzaren magalean negar zotinka eta amari deika, eta hara non gizon bat lorategian lasterka ikusi nuen.
zotinka	Haritzaren magalean negar zotinka eta amari deika, eta hara non gizon bat lorategian lasterka ikusi nuen.
lotu	Orduak ematen nituen amari deika, Etxe Zuriko pasilloetan hasieran, lorategian gero. Alferrik, ordea. Aitzurraren bilaketari lotzen nintzaion orduan,
zalutasunik eza	Niri bere zalutasunik eza ez zitzaidan axola. Solaskide nahi nuen, solaskide aparta, gainera.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

afera	Etxe Zurian bitzta osoa emandakoa zenez, oso jarrita zegoen bertako afera guztietan.
harrabots	Ez zen batere naturala halakorik gertatzea. Harrabotsa hainbeste gustatzen zitzaionari nola gerta zekiokkeen halakorik?
nire baitan	...eta txoko batean geratu nintzen, kuzkurtuta eta negarrez nire baitan .
olgeta	Normalean bai, baina egun hartan nik ez neukan olgetan ibiltzeko gogorik, tristaturik nenbilen oso...
oinazean ezjakin	Oinazean ezjakin , beste lagunak nor bere algaran zebiltzan, algara txikian, euliak bezala gela handiari etengabeko bueltak ematen.
sakaila	Haren sakaila gogoratze hutsarekin hotzikara sentitu nuen bizkar aldean.
hotzikara	Haren sakaila gogoratze hutsarekin hotzikara sentitu nuen bizkar aldean.
hitz jarioa	... oso zaila baita bestez arduratzea edota besteren hitz jarioari arreta eskaintzea.
asaldatu	...edonor asaldatu egiten baita hodei beltza gainean ikusita, begi asaldura baino ez bada ere.
hizpide	Moxalaren kontua ekarri zuen hizpidera mediku jaunak; ni zirikatzeke asmoz, noski.
kutun	—Ni ez nago gaixorik, eta, egonez gero, txikitan bezala amak mendiko atsoarengana eramango ninduke. Ukendu eta kutun ederrak zituen hark.
ukendu	—Ni ez nago gaixorik, eta, egonez gero, txikitan bezala amak mendiko atsoarengana eramango ninduke. Ukendu eta kutun ederrak zituen hark.
txatxarra	Baina nik ez dut ez buruko minik, ez sabeleko minik. Akaso txatxarra besterik ez dut.
sabai	Nik Manueli begiratzen nion, begiak sabaian iltzaturik eta baba-baba eginda, eta ez zitzaidan iruditzen sasoi onean zegoenik.
ahoa bete hortz utzi	Ahoa bete hortz utzi ninduen.
onura	Nik neure ama hiltzeagatik lortua nuen onura hura, eta Manuelek, algarak egiten maisua zelako.
hobetsi	...denbora pasa ahala, euliei buruzko nire iritziak ezkutuan gordetzeari hobetsi nion.
koipe fina	Hala hasi nintzen, koipe finaz . Berak errekonozimendu-jolasarekin jarraitu zuen, ordea, ezer esan gabe.
aieru	Hitz faltsuak ziren haiek, baina nolabait bere aurrean merezimendua lortu behar nuen. Gero, poliki-poliki aieruekin hasi nintzen.
isileko laguna	Oker nengoen, noski, ez ziren mediku jaunaren beldur, haren isileko lagunak ziren, baina artean niri ezin zitzaidan halakorik bururatu...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

taxutu	...eta noiz etorriko zain, denbora-pasa, idazmahaian eseri eta paperean euliak taxutzen hasi nintzen.
begitandu	Oso politak eta interesgarriak begitantzen zitzaizkidan.
otzan	Zirkulu otzanak eginez ematen diote buelta gelari, behin ere gelditu gabe.
parada	Mediku jaunarekin hitz egiteko parada ez nuen segituan jaso.
otordu	Otorduak ere ez zituen gurekin egiten. Tristeia iruditzen zitzaidan bizimodu hura.
uzkur	Hurrengo saioetan, uzkurrago , zuria agertu orduko buelta eman eta txintik atera gabe nire logelara itzultzen nintzen.
txintik atera	Hurrengo saioetan, uzkurrago , zuria agertu orduko buelta eman eta txintik atera gabe nire logelara itzultzen nintzen.
luze iritzi	Luze iritzi a alferrik ari nintzela ulertu nuen.
hurko	Zer deabru zeukaten gizon horiek hurkoari hain sufrimendu handia eragiteko?
inpentsan	—Ez hartu penarik, mediku jauna, ze, inpentsan , gutxien espero dugunean, sendatuko zaigu Manuel.
temoso	Harrezkero, arazoa ez zen algarak galarazten temosoak ziren ala ez. Larriagoa zen.
barreiatu	Manuelen oihuak Etxe Zuri osoan barreiatu rik, lagunak izutu egin ziren oso, haiek ez ziren-eta Manuelen algara alaiak...
menera	Bestela baba-baba eginda geratuko zarete guztiok, mediku jaunaren menera eta algararik egin ezinik.
liluratu	...etxeak berak liluratu ninduen, etxe hura izugarri handia baitzen, leku jostagarritz beterik, eta janaria amarena bezain ona izan ez arren...
tamalez	Tamalez , denboraren poderioz halako trikimailua ere ez zen nahikoa izan.
oro	...askatasunaren zapore garratza ere dastatua izanda, ondo baitakit hautaketa ororen ostean duda baten ikara datzala, eta beraz, ...
datzala	...askatasunaren zapore garratza ere dastatua izanda, ondo baitakit hautaketa ororen ostean duda baten ikara datzala , eta beraz...
leihat	...bizitzaren korapiloetan lumatu gabeko txoria izan, eta ulergaitzari esplikazioa bilatzen lehiatzen nintzen erraztasun handiz...
lumatu	Mediku jauna ezagutu nuenean, ordea, bizitzaren korapiloetan lumatu gabeko txoria izan...
ahuldade	Segituan, ordea, nire burutazioen ahuldadea nabarmendu zitzaidan...